

**FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOAREN
KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK**

LABURPENA

A) SARRERA: KONTRATAZIORAKO LEGE ARAUBIDEA.

Fundazioa sektore publikoko erakunde gisa.

Fundazioa administrazio publikoaren izaera ez duen botere esleitzailerik gisa.

Sektore publikoko kontratuen eremua.

Fundazioaren kontratuen izaera pribatua.

Arau harmonizatupean dauden eta ez dauden kontratuak.

**B) FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOAREN
KONTRAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK.**

1. Onarpena eta nahitaezkotasuna.
2. Jarraibideen xedea eta aplikazio eremua.
3. Kontratuen lege araubidea.
4. Kontratuaren premia eta egokitasuna.
5. Kontratuen iraupena.
6. Itunak egiteko askatasuna.
7. Kontratuen gutxienerako edukia.
8. Kontratua burutzea eta kontratuaren forma.
9. Kontratuen baliogabetasuna.
10. Arbitrajea.
11. Kontratazio organoa.
12. Kontratuaren arduraduna.
13. Kontratatzaile profila.

-
14. Enpresaburuen gaitasuna eta kaudimena.
 15. Kontratuaren xedea.
 16. Kontratuen prezioa.
 17. Kontratuen balio zenbatetsia kalkulatzeko.
 18. Bermeak.
 19. Kontratazio espedientea.
 20. Administrazio klausula zehatzen agiria.
 21. Baldintza teknikoen agiria.
 22. Esleipenaren printzipio gidariak.
 23. Lizitazioen deialdien publizitatea.
 24. Lizitatzailleek parte hartzeko eskaerak eta proposamenak aurkeztea.
 25. Eskaintzen balorazioa eta kontratuaren esleipena.
 26. Esleipenen publizitatea.
 27. Uko egitea eta atzera egitea.
 28. Kontratua formalizatzea.
 29. Prozedura irekia, murriztua eta negoziatua.

**FUNDACIÓN KIROLARABA FUNDAZIOAREN
KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK.**

A. SARRERA: KONTRATAZIORAKO LEGE ARAUBIDEA.

FUNDAZIOA SEKTORE PUBLIKOKO ERAKUNDE GISA

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateratua onartzen duenak (hemendik aurrera, 3/2011 EDL), honako hau xedatzen du bere 2. artikuluan: "Sektore Publikoko kontratuak dira 3. artikuluan adierazitako erakundeek, organismoek eta entitateek egiten dituzten kostu bidezko kontratuak, horien izaera juridikoa edozein izanik ere".

Eta 3. artikulua honako hau xedatzen du: "*Lege honen ondorioetarako, hauek osatzen dute sektore publikoa:*

f) Fundazioak, baldin eta sektore publikoaren barruko entitate batek edo zeinbaitek egin badu, zuzenean nahiz zeharka, haiek eratzeko behar den ondarea osatzeko ekarpenen gehiengoa, edo haien fundazio ondarea, ehuneko 50etik gorako portzentaian, entitate horiek emandako edo lagatako ondasunez edo eskubidez eratuta badago modu iraunkorren".

Baldintza horiek bete egiten ditu FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak; izan ere, Arabako Foru Aldundiak egin baitu hura eratzeko behar den ondarea osatzeko ekarpenen gehiengoa eta fundazio ondarearen ehuneko 50 baino gehiago erakunde horren ekarpenekin eratu baita.

Aipatutako erakundeak FUNDACIÓN KIROLARABA izeneko fundazioaren patronatua osatzen du.

.....

FUNDAZIOA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN IZAERA EZ DUEN BOTERE ESLEITZAILE GISA

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioa Herri Administrazio izaera ez duen botere esleitzailerik da, 3/2011 EDLko 3-3. artikuluan xedatutako parametro guztiak betetzen dituen aldetik:

"Lege honen ondorioetarako, honako ente, organismo eta entitate hauek joko dira botere esleitzailerik gabe:

b) Berezko nortasun juridikoa daukaten gainerako ente, organismo eta entitate guztiak [...] [herri administrazioez] bestelakoak, berariaz industria edo merkataritza izaerarik ez duten interes orokorreko premiei erantzuteko sortuak direnean eta, betiere botere esleitzailerik den subjektu batek edo zenbaiten jardun hori gehiengoz finantzatzen badu, kudeaketa kontrolatzen badu edo administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoko kideen erdiak baino gehiago izendatzen baditu".

SEKTORE PUBLIKOKO KONTRATUEN EREMUA.

EDLk bere aplikazio eremutik kanpo dauden negozioak eta kontratuak jasotzen ditu.

5. artikuluan, honako hau jasotzen du:

"1. Sektore publikoko ente, organismo eta entitateek egiten dituzten obra kontratuak, obra publikoen emakida kontratuak, zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuak, hornidura kontratuak eta sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak atal honetako arauen arabera kalifikatuko dira.

2. Sektore publikoko gainerako kontratuak aplikatzekoak zaizkien administrazio zuzenbideko arauen arabera edo zuzenbide pribatuko arauen arabera kalifikatuko dira".

FUNDAZIOKO KONTRATUEN IZAERA PRIBATUA.

EDLren 18. artikuluan honako hau xedatzen du: *"Sektore publikoaren kontratuek izaera administratiboa edo pribatua izan dezakete".*

.....

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren kontratuek izaera pribatua dute legearen 20. artikulua araberan: "1. Kontratu pribatutzat joko dira administrazio publikoaren izaera ez duten sektore publikoko [...] entitateek egindako kontratuak".

2. Kontratu pribatuen prestaketa eta esleipena, berriazko legerik ezean, lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen pean egongo dira, eta, horien osagarri, administrazio zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira, edo, hala balegokio, zuzenbide pribatuko arauak, subjektu edo entitate kontratatzailearen arabera zer dagokion. Ondorioei eta azkentzeari dagokionez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren pean egongo dira".

Dena den, kontratu hauei EDLren I. liburuko V. tituluan jasotako arauak, kontratuak aldatzeari buruzkoak, aplikatuko zaizkie.

EDLren 21. artikulua araberan: "1. Administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa izango da eskuduna [...] arau harmonizatupeko kontratuen prestaketari eta esleipenari buruz sortzen diren auzien gainean [...].

2. Jurisdikzio zibilak izango du kontratu pribatuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari buruz alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko eskumena. Jurisdikzio horrek izango du, halaber, administrazio publikoaren izaera ez izan arren lege honen menpe dauden [...] entitateek egindako kontratu pribatuen prestaketari eta esleipenari buruzko auzien gaineko eskumena; betiere, kontratu horiek arau harmonizatupeko kontratuak ez badira".

ARAU HARMONIZATUPEAN DAUDEN ETA EZ DAUDEN KONTRATUAK.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak egindako kontratuak arau harmonizatupekoak izan daitezke ala ez.

13. artikulua araberan, "Arau harmonizatupeko kontratuak dira sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak kontratuak, beti, bai eta obra kontratuak, obra publikoen emakida kontratuak, hornidura kontratuak eta II. eranskinen 1. kategoriatik 16.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak ere, baldin eta haien balio zenbatetsia [...] ondorengo artikuluetan [14.etik 16.era] aipatzen diren kopuruetakoa edo handiagoa dela jotzen bada, eta,

.....

betiere, entitate kontratatzailea botere esleitzailera bada. Arau harmonizatupeko kontratutzat joko dira, baita ere, entitate horiek diruz lagundutako kontratuak; 17. artikuluan aipatzen direnak, hain zuzen".

Oinarrian, arau harmonizatupeko kontratuak dira honako hauek:

- 5.225.000,00 euroko balioa edo handiagoa duten obra kontratuak.
- 209.000,00 euroko balio zenbatetsia edo handiagoa duten hornidura kontratuak.
- II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, 209.000,00 euroko balio zenbatetsia edo handiagoa dutenak.

Kontratu bat arau harmonizatupekoa izan edo ez izateak lege araubide baten edo bestearen menpe egotea ekarriko du, bereziki kontratuen prestaketari eta esleipenari dagokionez.

Horrela, bada, EDLren 137. artikulua (kontratuen prestaketa), honako hau xedatzen du:

"1. Administrazio publiko ez diren botere esleitzailerek egindako kontratuetan, arau harmonizatupeko kontratuak badira edo II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean sartzen diren 209.000 eurotik gorako zerbitzu kontratuak badira, bai eta 17. artikuluan aipatzen diren diruz lagundutako kontratuetan ere, baldintza teknikoak definitu eta ezartzeko xedez 117. artikuluan zehaztutako arauak begiratu beharko dira, eta, halaber, 118. artikulutik 120.era xedatutakoa ere aplikatuko da. Kontratu egitea beharrezkoa bada premia atzerazekin bati erantzuteko, edo interes publikoko arrazoiengatik esleipena arintzea komeni bada, kontratazio organoak presaz izapidetu beharrezkotzat jo dezake, kontratu prestatzeko dokumentuetan behar bezala arrazoituta. Kasu honetan, 112.2.b) artikuluan epeak laburtzeari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

2. Goiko paragrafoan aipatutakoez besteko kontratuetan, 50.000,00 eurotik gorakoak badira, administrazio publiko ez diren botere esleitzailerek agiri bat prestatu beharko dute, eta, bertan, honako hauek zehaztu beharko dituzte: kontratuaren oinarrizko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak jasotzeko moduak,

.....

esleipen irizpideak eta, hala balegokio, lizitatuzaileek edo esleipendunak jarri beharreko bermeak; halaber, [lan kontratuetan subrogatzeari buruzko] 120. artikuluan xedatutakoa ezarriko da. Agiri hori kontratuaren zati izango da".

EDLren 189. artikulua (kontratuen esleipena) honako hau xedatzen du: "administrazio publiko ez diren botere esleitzzaileek atal honetako arauak [189. artikulutik 191.era] aplikatuko dituzte beren kontratuak esleitzeko".

190. artikulua araberaz:

"1. Arau harmonizatupeko kontratuen esleipena aurreko atalean [administrazio publikoetako kontratuak esleitze] ezarritako arauak arautuko dute, honako egokitze hauekin:

a) Ez dira aplikatuko arau hauek guztiak: irizpide subjektiboak baloratu behar dituzten adituen batzordearen esku hartzeari buruz 150.2 artikulua bigarren paragrafoan ezarritakoak; 152. artikulua 1. eta 2. paragrafoetan eskaintzen izaera anormala edo neurritz kanpokoak hautematekoak; 156. artikuluan kontratuak formalizatzeari buruz ezarritakoak [3. paragrafoan ezarritako epea betetzeari eta 5. paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe]; 1160. artikuluan proposamenak aztertzeari eta esleipen proposamenei buruz ezarritakoak eta 172. artikuluan zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuak esleitzeko prozedura negoziatura jo ahal den kasuei buruz ezarritakoak.

b) Ez da beharrezkoa izango lizitazioak eta esleipenak 142. artikulua 1. paragrafoaren lehenbiziko idatz zatiak eta 154. artikulua 2. paragrafoaren lehenbiziko idatz zatiak aipatzen dituzten aldizkari ofizialetan argitaratzea, eta Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean iragarkia argitaratzearekin eta dagokion informazioa 334. artikulua aipatzen duen kontratazio plataforman edo entitate kontratatzaileari dagokion administrazio publikoak kudeatutako pareko sisteman ezartzearekin publizitate printzipioa betetzen dela ulertuko da, norik bere borondatez bitarteko gehigarriak erabiltzearen kalterik gabe.

2. Baldin eta, presazko arrazoiengatik, ezin badira bete ezarritako gutxienezko epeak, 112.2 b) artikuluan epeak murrizteari buruz ezarritakoa aplikatuko da".

.....

Arau harmonizatupeko kontratuen lizitazioetarako deialdiak argitaratzeari dagokionez, 142. artikulua xedatzen du lizitazioa Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean ere iragarri beharko dela, eta, kasu horretan, autonomia erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialetan jarritako iragarkiek ezingo dutela ordeztu Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko iragarkia.

Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean iragarkia argitaratzearekin eta dagokion informazioa 334. artikulua aipatzen duen kontratazio plataforman edo entitate kontratatzaileari dagokion administrazio publikoak kudeatutako pareko sisteman ezartzearekin nahikoa dela ulertuko da, norik bere borondatez bitarteko gehigarriak erabiltzearen kalterik gabe, eta kasu honetan ez da beharrezkoa izango iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea. (190.1.b artikulua).

Lizitazio iragarkiak, halaber, kontratatzaile profilean argitaratuko dira.

Arau harmonizatupeko kontratuen esleipenak argitaratzeari dagokionez, 154. artikulua xedatzen du esleipenak Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko direla.

Esleipena, halaber, kontratatzaile profilean argitaratuko da.

Arau harmonizatupekoak ez diren kontratuak, ordea, ez daude administrazio publikoei aplikatutako esleipen arauen menpe; kasu horietan legeak autorregulazioa baimentzen du, administrazio kontratazioaren oinarriko printzipioak errespetatu behar dituzten barne jarraibideen bitartez.

191. artikulua honako hau xedatzen du:

"Arau harmonizatupean ez dauden kontratuak esleitzean, honako xedapen hauek aplikatuko dira:

a) Esleipena, publizitate, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da.

b) [Administrazio publikoez bestelako botere esleitzailak diren] entitateetako organo eskudunek nahitaez bete beharreko jarraibideak onartuko dituzte beren etxe barrurako, eta, bertan, kontratazio prozedurak arautuko dira, aurreko idatz zatian aipatzen

.....

diren printzipioen eraginkortasuna bermatuz eta kontratua ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintza aurkezten duenari esleituz. Arautzen dituzten kontratuen esleipen prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarri behar dira jarraibide hauek, eta entitatearen kontratatzaile profilean argitaratu behar dira.

Estatuaren sektore publikoaren esparruan, Estatuko abokatutzaren aldez aurreko txostena beharko da jarraibide hauek onartzeko.

c) 50.000,00 eurotik gorako zenbatekoa duten kontratuen lizitazioari buruzko informazioa entitatearen kontratatzaile profilean argitaratuz, publizitate printzipioaren betekizunei erantzun zaiela joko da, kontrataziorako barne jarraibideek hedapenerako beste bide batzuk, ordezkioak edo gehigarriak, ezartzearen kalterik gabe".

.....

B. KONTRATAZIORAKO BARNE JARRAIBIDEAK.

1. JARRAIBIDEA - ONARPENA ETA NAHITAEZKOTASUNA.

Jarraibide hauek FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren patronatuak aho batez onartu zituen 2011ko azaroaren 25ean.

Jarraibide hauek nahitaez bete beharko dira FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren barruan. Halaber, jarraibideok araututako kontratuen esleipenerako prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarriko dira eta FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren kontratatzaile profilean argitaratuko dira.

Jarraibideok onartzen direnean jarriko dira indarrean eta egun horretatik aurrera hasten diren kontratazio prozedurei aplikatuko zaizkie.

Jarraibideoi aldaketak eta gehikuntzak egin ahalko zaizkie edozein unetan patronatuaren erabaki bidez.

Hori guztia, nahitaez bete beharreko lege aldaketak eta gehikuntzak aplikatzeari kalterik egin gabe.

2. JARRAIBIDEA - JARRAIBIDEEN XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA.

EDLren 191. artikulua araberan, jarraibide hauen helburua da arau harmonizatupean ez dauden kontratuen kontratazio prozedurak arautzea, publizitate, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen eraginkortasuna bermatu dadin eta kontratua ekonomiaren aldetik abantailatsuen den eskaintza aurkezten duenari esleitzen dakion.

Oinarrian, arau harmonizatupean ez dauden kontratuak dira honako hauek:

5.225.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten obra kontratuak.

.....

209.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia duten hornidura kontratuak.

II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, 209.000,00 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak.

II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak

Europako Batzordeak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak kasuan-kasuan ezartzen dituzten zenbatekoek jarraibide hauetan zehazten diren zenbatekoak automatikoki egokitzen dituztela ulertuko da.

Obra, hornidura eta zerbitzu kontratuen motak kalifikatzeko EDLren 6., 9., 10. eta 122. artikuluetan jasotako definizioak eta I. eta II. eranskinak hartuko dira kontuan.

Kontraturen batek beste mota bateko kontraturen bati edo gehiagori dagozkion prestazioak hartzen baditu, ekonomiaren aldetik garrantzirik gehien duen prestazioaren izaera hartu behar da kontuan haren esleipena arautuko duten arauak zeintzuk izango diren zehazteko (kontratu mistoak).

Jarraibide hauek ez zaizkie aplikatuko EDLren 4. artikulua legearen aplikazio eremutik kanpo uzten dituen kontratu eta harreman juridikoei.

3. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN LEGE ARAUBIDEA.

Arau harmonizatupean ez dauden kontratuak izaera pribatua izango dute eta horien prestaketa eta esleipena, jarraibide hauen pean egongo dira; halakorik ezean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen eta hura garatzen duten xedapenen pean egongo dira; horien osagarri, administrazio zuzenbideko edo zuzenbide pribatuko gainerako arauak aplikatuko dira.

Ondorioei eta azkentzeari dagokionez, kontratu hauek zuzenbide pribatuaren pean egongo dira. Hala ere, kontratu hauei EDLren I. liburuko V. tituluari jasotako arauak aplikatuko zaizkie.

Jurisdikzio eskudunari dagokionez, EDLren 21. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

.....

ARAU OROKORRAK

4. JARRAIBIDEA - KONTRATUAREN PREMIA ETA EGOKITASUNA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak bere helburuak, sorrerako eskrituran eta estatutuetan jasotakoak, betetzeko eta gauzatzeko beharrezkoak diren kontratuak egingo ditu, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren xedea eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere; horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua esleitzeko prozedurari ekin aurretik.

5. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN IRAUPENA.

Kontratuen iraupena zehazterakoan, kontuan hartu beharko da kontratu horietan jasotako prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolakoa izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek nola ematen diren aztertu beharra ere bai.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren kontratazio organoak erabakiko du kontratua luzatu edo ez. Luzatzea erabakitzen badu, enpresak ezinbestean onartu beharko du luzapena, non eta kontratuak ez duen berriaz kontrakoa aurreikusten; ezin da luzapenik izan bi aldeek isilbidezko adostasunaren bidez.

6. JARRAIBIDEA - ITUNAK EGITEKO ASKATASUNA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak egiten dituen kontratuetan edozein itun, klausula eta baldintza sartu ahal izango da, baldin eta interes publikoaren kontra, antolamendu juridikoaren kontra, administrazio onaren printzipioen kontra, fundazioa sortzeko eskrituraren kontra edo fundazioaren estatutuen kontra ez bada.

7. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN GUTXIENeko EDUKIA.

.....

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak egiten dituen kontratuek honako aipamen hauek jaso behar dituzte nahitaez, klausula agirietan azaltzen ez badira:

- a) Alderdien nortasuna.
- b) Alderdiak kontratua izenpetzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- c) Kontratuaren xedearen definizioa.
- d) Kontratuari aplikatzekoa zaion legediaren aipamena.
- e) Kontratua osatzen duten dokumentuen zerrenda zenbakitua.
- f) Prezio zehatza edo hura zehazteko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo kontratua gauzatzen hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, bai eta luzapena edo luzapenak ere, baldin eta aurreikusita badaude.
- h) Prestazioak jasotzeko, entregatzeko edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordainketa baldintzak.
- j) Kontratua zein kasutan suntsiarazi behar den.
- k) Hala egokituz gero, prezioa zein kontabilitate programa edo errubrikaren kontura ordainduko den.
- l) Hala egokituz gero, kontratugileari ezartzen zaion isilekotasun betebeharrak zer hartzen duen eta zenbat denborarako den.

Kontratu agirian ezingo da ezarri baldintza orrietan ezarritakoez besteko eskubide eta betebeharririk alderdientzat, klausula agirietan ezarrita ez baldin badaude; esleipendunaren proposamenean edo kontratua esleitzeko egintzan zehaztuko dira horiek, prozeduran gauzatutakoaren arabera.

8. JARRAIBIDEA - KONTRATUA BURUTZEA ETA KONTRATUAREN FORMA

Arau harmonizatupean ez dauden kontratuak formalizatzen direnean burutzen dira.

Kontratuak idatziz egingo dira eta ezingo da kontraturik ahoz egin, non eta kontratua ez den larrialdi kasukoa.

.....

Kontratuak Gasteizen egin direla ulertuko da, klausuletan bestelakorik adierazi ezean.

Kontratuei 40-1. artikulua araberako kontratazio alorreko errekurtsu berezia jarri ahal bazaie, kontratuok 156-3. artikuluan zehaztutako epeetan formalizatu beharko dira.

9. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN BALIOGABETASUNA.

Arau harmonizatupeko kontratuak baliogabeak izango dira klausulak legez kontrakoak direnean; halaber, kontratu horiek baliogabeak izango dira kontratua prestatzeko egintzak edo esleipen egintzak baliogabeak badira jarraibide hauetan xedatutakoaren arabera aplikagarri zaizkien administrazio zuzenbideko edo zuzenbide zibileko arauetakoren bat hausten dutelako.

EDLren 37. artikulutik 39.era artean ezarritako arauak (kontratuen deuseztasun kasu bereziak) eta 40. artikulutik 49.era artean ezarritakoak (kontratazio alorreko errekurtsu berezia) aplikatuko dira.

10. JARRAIBIDEA - ARBITRAJEA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak arbitrajera jo dezake kontratuen eraginari, betetzeari eta azkentzeari buruz sor daitezkeen ezadostasunak konpontzeko, Arbitrajeari buruzko abenduaren 23ko 60/2003 Legearen xedapenen arabera.

KONTRATUKO ALDERDIAK

11. JARRAIBIDEA - KONTRATAZIO ORGANOA.

EDLren 51. eta 316.6. artikuluek xedatutakoaren arabera, kontratuen alorrean, pertsona bakarreko zein kide anitzeko kontratazio organoak izango dira FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioaren ordezkari, baldin eta haren izenean kontratuak egiteko ahalmena badute, fundazioaren estatutuen eta egindako ahalordetzeen arabera.

12. JARRAIBIDEA - KONTRATUAREN ARDURADUNA.

Kontratazio organoak kontratuaren arduradun bat izendatu ahal izango du. Pertsona horrek, esleitu zaizkion ahalmenen barruan, kontratua nola betetzen den gainbegiratuko du, eta beharrezko erabakiak hartu eta jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala egiten dela bermatzeko. Kontratuaren arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioari lotua edo kanpokoa (azken kasu honetan zerbitzu kontratu bat egin beharko da).

Obra kontratuetan, kontratuaren arduradunaren ahalmenek ez dituzte eragotziko obraren zuzendari fakultatiboari dagozkionak.

13. JARRAIBIDEA - KONTRATATZAILE PROFILA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak kontratatzaile profila zabalduko du Internet bidez, kontratuei lotutako jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna bermatzeko eta jendeak informazio hori kontsultatu ahal duela ziurtatzeko. Gainera, lege honetan edo barne jarraibide hauetan ezarritako kasuetan, bestelako publizitate bitartekoak ere erabiliko ditu. Fundazioaren web orrian, klausula agirietan eta lizitazio iragarkietan eta hala dagokionean, Estatuaren Kontratazio Plataforman adieraziko da profil hori nola kontsultatu.

Kontratatzaile profilaren barruan, kontratazio organoaren iritziz egokiak diren kontratazio organoaren beraren kontratu alorreko

.....

jarduerari buruzko datu eta informazio guztiak sartuko dira, hala nola, irekitako edo izapidetzen ari diren lizitazioak eta horiei buruzko agiriak, programatutako kontratazioak, esleitutako kontratuak, deuseztatutako prozedurak eta izaera orokorreko edozein informazio erabilgarri (adibidez, kontratazio organoarekin harremanetan jartzeko erabil daitezkeen komunikabideak eta harremanetarako guneak). Kontratuen esleipena argitaratu egin behar da kasu guztietan.

14. JARRAIBIDEA - ENPRESABURUEN GAITASUNA ETA KAUDIMENA.

Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek kontratatu ahal izango dute FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioarekin, betiere kontratatzeke debekuren batek eragiten ez badie eta ekonomia eta finantza kaudimena eta gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu badute.

Enpresaburuek, halaber, kontratuaren xedea osatzen duen jarduera edo prestazioa gauzatzeko beharrezkoa den enpresa edo lanbide gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio, eta ezingo dute EDLren 56. artikuluan jasotako bateraezintasunetako batean ere sartuta egon.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioarekin kontratuak egiteko, enpresaburuek klausula agirian jasotako gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte ekonomia eta finantza kaudimenari eta gaitasun tekniko eta profesionalari dagokionez. Betekizun horren orde, sailkapena eskatu ahal izango da eta FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak sailkapen jakin bat eskatu ahal izango die lizitatzailerei dena delako kontratua egiteko eskatzen diren kaudimen baldintzak zehazteko.

Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen baldintzak eta horiek egiaztatzeko behar den dokumentazioa lizitazio iragarkian adierazi, eta kontratuaren klausula agirian zehaztuko dira; xedeari lotuak eta proportzionalak izan behar dute.

Kontratu jakin bat egiteko behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburua beste entitate batzuen kaudimenean eta bitartekoetan

oinarritu ahal izango da, betiere, kontratua gauzatzeko behar diren bitarteko horiek badituela egiaztatzen badu.

EDLren 64. artikulua araberan, *"Zerbitzu eta obra kontratuetan, eta zerbitzuak ematea edo zerbait kokatzea edo instalatzea eskatzen duten hornidura kontratuetan, pertsona juridikoei [klausula agirian] eskatu ahal izango zaie jar ditzatela eskaintzan edo parte hartzeko eskabidean prestazioa emateaz arduratuko diren langileen izenak eta lanbide kualifikazioak"*.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak aukera izango du *"lehiatzaileei edo lizitatzailaiek eskatzeko, baldin eta klausula agirietan horrela jasota utzi badute, har dezatela [...] giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko konpromisoa."*

Langileen izenak eta lanbide kualifikazioak zehazteko betebeharra eta kontratua gauzatzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak jartzeko konpromisoa hartzekoa kontratuaren dokumentuan sartuko dira, eta klausula agirian edo kontratuan nahitaezkoztat jo daitezke. Horrela, bada, esleipendunak betebeharrak betetzen ez baditu (beharrezkoak direnak baino bitarteko gutxiago jartzeagatik edo eskatutakora iristen ez den lanbide kualifikazioa duten langileak erabiltzeagatik), kontratua suntsiarazi ahal izango da eta esleipendunari zigorrak jarri ahal izango zaizkio.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioarekin kontratatze gaitasun baldintzak, kontratatze debekuak, halakorik dagoela deklarazioa eta horren ondorioak, eta enpresei eskatu ahal zaien jarduteko gaitasuna eta kaudimena, baita kontratu mota bakoitzean horiek zehaztatzea eta egiaztatzea ere, EDLren 54. artikulutik 85.era arteko artikuluek arautuko dituzte.

.....

KONTRATUAREN XEDEA, PREZIOA, ZENBATEKOA ETA BERMEAK

15. JARRAIBIDEA - KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea zehatza izan behar da.

Kontratua ezin da zatitu kontratuaren zenbatekoa gutxitzeko eta publizitate betekizunak eta esleipen prozedurari dagozkionak saihesteko.

Kontratuaren xedea zatitu ahal denean eta espedientean behar bezala justifikatzen bada, zati bakoitza banan-banan gauzatzea aurreikus daiteke, kontratua lotetan zatituz, betiere loteok bereiz erabili edo aprobetxatzeko modukoak badira eta unitate funtzionala osatzen badute, edo xedearen izaerak hala egitea eskatzen badu.

Halaber, prestazioak bereiz kontratatu ahal izango dira, bakoitza bere aldetik, baldin eta, horien berezko ezaugarriak direla eta, bakoitza bere aldetik gauzatzeko modua ematen badute, hain zuzen ere gaikuntza jakin bat duten enpresek egin behar dituztelako.

Kasu bietan, lote edo prestazio bereizi bakoitza esleitzerakoan aplikatu beharreko prozedura eta publizitate arauak prestazio guztiek batera duten balio pilatuaren arabera ezarriko dira, EDLren 14-2., 15-2. eta 16-2. artikuluetan xedatutakoa salbu.

16. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN PREZIOA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioko kontratuek eurotan adierazitako prezio zehatza izango dute, nahiz eta ordainketa beste kontraprestazio batzuk emanda ere egin daitekeen, legeek edo itunek halakorik baimentzen badute. Kontratazio organoek, kontratuaren xedeari dagokion prestazioa benetan bete dadin, prezioa egokia izatea zainduko dute, zenbatekoaren balioespen egokia eginez. Horretarako, lizitazio aurrekontua finkatzerakoan merkatu prezio orokorra hartuko dute kontuan, eta hala badagokio, balio anormal edo neurrigabeekiko eskaintzei buruzko arauak aplikatuko dituzte.

.....

Kontratuaren prezioa adierazteko, unitateko prezioak erabili ahalko dira, prestazioaren osagaiei edo entregatzen edo gauzatzen diren prestazioaren unitateei dagozkienak, edo, bestela, kontratuaren prestazio guztiei edo batzuei aplikatu dakizkiekeen hainbesteko finko bateko prezioak. Obra kontratuetan, administrazioak finkatu ahalko du prezioa eta zerbitzu kontratuetan, tarifa jakin batzuk aplikatuz finkatu ahalko da.

Beti ere, partida berezi gisa adieraziko da FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak bere gain hartu beharreko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa.

Kontratuan finkatutako prezioak berrikusi edo eguneratu ahal izango dira, klausula agirietan hala aurreikusi eta kontratuan hala itundu bada, prezioak gorantz edo beherantz doitu behar direnean kontratua gauzatu bitartean izan daitezkeen aldaketa ekonomikoetara egokitzeke.

Klausula agiriak edo kontratuak zehaztu beharko dute aplikatu beharreko berrikuspen formula edo sistema.

Kontratuetan, beren izaerak eta xedeak horretarako aukera ematen dutenean, prezioak berrikusteko klausulak sartu ahalko dira, prezioak epe edo errendimendu helburu jakin batzuen arabera aldatzeko. Zigorrek ere aurreikus daitezke, kontratu klausulak ez betetzeagatik. Zehatz-mehatz adierazi beharko da klausula agirietan zein kasutan gertatuko diren prezio aldaketa horiek, eta orobat zenbatekoa zehazteko arauak.

Behin kontratua burututakoan, ezusteko edo gerora sortutako kausei erantzuteko aldaketak sartu ahalko ditu kontratazio organoak kontratuan, eta espedientean behar bezala justifikatu beharko du. Aldaketa horiek ezin izango diete eragin kontratuaren funtsezko baldintzei.

Ez da kontratuaren aldaketatzat hartuko kontratuaren xedea zabaltzea, baldin eta zabaltze hori ezin bada hasierako proiektuan integratu zuzenketa baten bidez, edo erabilera edo aprobetxamendu independentea izan dezakeen prestazioa gauzatzea bada, edo kontratua prestatzeko dokumentazioan jaso ez diren beste helburu batzuk betetzeko prestazioa gauzatzea bada. Prestazio horiek bereiz kontratatu beharko dira, baina, hala ere, prestazio osagarriak

.....

kontratazeko araubidea aplikatu ahal izango da, betiere 171 b) eta 174 b) artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

Kontratua aldatzeko aukera eta aldaketa hori zein baldintzatan egin ahal izango den, klausula agirietan eta kontratu agirian jaso beharko da.

Baldin eta kontratua aldatuta, obra unitateak (edo hornidura osatzen duten ondasun unitateak edo kontratuaren xede diren zerbitzuak) gehitu, gutxitu edo ezabatu egiten badira, edo batzuen ordezkari beste batzuk jartzen badira (betiere, ondasun horiek ere kontratuan jasota badaude) kontratistak nahitaez bete behar ditu aldaketa horiek eta ez du inolako eskubiderik izango ezabatzeak edo gutxitzeak direla eta kalte ordainik eskatzeko.

Kontratuaren zenbatekoaren aldaketek, bai goitik zein behetik, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20 baino gehiagokoak badira, BEZa kanpoan dela, edo hasierako prestazioari funtsezko aldaketaren bat sortzen badiote, kontratua kalte ordainik gabe suntsiaraztea ekarriko dute.

Kontratuak aldatzeari dagokionez, EDLren 105, artikulutik 108.era eta 219., 234., 296. eta 306. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

17. JARRAIBIDEA - KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA KALKULATZEA.

Kontratuaren balio zenbatetsia zenbateko osoaren arabera izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpo utzita. Hori kontratazio organoak balio zenbatetsi osoa kalkulatzeko egiten duen zenbatespenaren arabera ordaindu beharko da. Kontuan hartu beharko dira egon litezkeen edozein aukera mota eta egon litezkeen kontratu luzapenak.

Hautagaiei edo lizitatzailerei primak ordaintzea edo ordainketak egitea aurreikusi denean, horien zenbatekoa kontuan hartuko da kontratuaren balio zenbatetsia kalkulatzeko.

106. artikuluan arabera, lizitazio agirietan edo iragarkian aurreikusi baldin bada kontratua aldatzeko aukera, kontratuaren balio estimatutzat kontratu horrek izan dezakeen gehieneko zenbatekoa hartuko da, aurreikusitako aldakuntza guztiak kontuan edukita.

.....

Kalkulua egiteko kontuan hartuko dira EDLren 88. artikuluan ezarritako arauak.

18. JARRAIBIDEA - BERMEAK.

Kontratazio organoak bermea eratzeko exijitu ahalko die klausula agirian lizitatzaleei edo hautagaiei, esleipena egin arte beren eskaintzei eutsiko dietela ziurtatzeko. Esleipendunari dagokionez, 151-2. artikulua bigarren paragrafoak ezartzen dizkion betebeharrak betetzen dituela ziurtatuko du behin-behineko bermeak. Klausula agirian behin-behineko bermearen zenbatekoa zehaztuko da, eta ezingo da izan kontratuaren aurrekontuaren ehuneko 3 baino handiagoa.

Kontratazio organoak behin-behineko bermea exijitzea erabakitzen duenean, behar bezala arrazoitu beharko du espedientean zergatik deritzon egoki behin-behineko berme horri.

EDLren 103.4. eta 103.5. artikulua aplikatuko dira.

Halaber, kontratazio organoak behin betiko bermea eskatu ahalko du klausula agirian kontratua behar bezala gauzatzen dela bermatzeko.

Berme horren zenbatekoa, halakorik egotekotan, esleipenaren zenbatekoaren ehuneko 5 izango da, Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela; kasu berezietan zenbateko hori beste ehuneko 5 igo ahalko da, baina guztizko bermeak ezingo du inolaz ere kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa izan.

Behin betiko bermeari dagokionez, honako artikulua hauek aplikatuko dira: 99. artikulua (bermeak eratzea, berriz jartzea eta egokitzea), 100. artikulua (bermeak eta erantzukizunak) eta 102. artikulua (bermeak itzultzea eta ezereztea).

Kontratazio organoak ezar dezakeen behin-behineko bermea, baita behin betikoa ere, EDLren 96. artikuluan aurreikusitako moduetan aurkeztu ahalko dira.

KONTRATUAK PRESTATZEA

19. JARRAIBIDEA - KONTRATAZIO ESPEDIENTEA.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak kontratuak egin aurretik, kontratuak egiteko ardura duen fundazioaren zerbitzuak kontratazio espedienteak egin beharko ditu. Espediente horietan honako hauek sartuko dira:

- Kontratuaren premia eta egokitasuna arrazoitzen dituen memoria. Memoriak kontratuaren xede osoari buruzkoa behar du, nahiz eta loteetan zatitu ahal izango den, eta prezio zenbatetsia finkatu behar du.
- Fundazioaren lehendakariaren ziurtagiria, kontratuaren prezioa ordaintzeko betebeharra betetzeko kreditu nahikoa dagoela egiaztatzen duena.
- Kontratua esleitzeko aukeratu den prozedura eta kontuan hartuko diren irizpideak, jarraibide hauetan jasotako aurreikuspenen arabera izan beharko direnak.
- Kontratua arautuko duten administrazio klausula zehatzen agiria eta, hala dagokionean, baldintza teknikoena.

Baldin eta lehia elkarrizketa aukeratzen bada, bi agiri horien ordean, 181-1. artikuluan aipatzen den deskripzio agiria erabiliko da. 50.000,00 eurotik beherako kontratuetan ez da agiririk beharko, 137. artikulua araberara.

Espedientea osatu eta gero, ebazpena emango du kontratazio organoak, espedientea onartzeko eta esleipen prozedura irekitzea xedatzeko. Ebazpen horrek gastuaren onespina ere ekarriko du.

Kontratu txikiei dagokienez, EDLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera jokatu da.

Presazko izapideak jarrai ditzakete atzera ezineko premia daukaten kontratuen espedienteek edo interes objektiboa dela-eta kontratuen esleipena bizkortu beharra dutenek. Horretarako, kontratazio organoak egindako presakotasun adierazpena eduki behar du

.....

espedienteak, behar bezala arrazoituta. EDLren 112. artikulua xedatutakoa beteko da.

Kasu horretan, jarraibide hauetan lizitazioa eta esleipena egiteko ezarritako epeak erdira murriztuko dira eta kontratazio organoak kontratua gauzatzen hasteko erabakia hartu ahalko du, kontratua formalizatu gabe egon arren.

Larrialdiko izapidetzerako aukera ere badago, arrisku larria sortzen duten egoerak direla-eta, kontratazio organoak berehala jardun behar duenean erabiliko dena.

Kasu horretan, kontratazio organoak agin dezake, administrazio espedienterik izapidetzeko beharrik gabe, gertatutakoa konpontzeko behar den oro egitea, edo xedea libreki kontratatzea, jarraibide hauetan ezarritako betebeharrak formalen pean egon gabe.

20. JARRAIBIDEA - ADMINISTRAZIO KLAUSULA ZEHATZEN AGIRIAK.

Gastua baimendu aurretik edo hura baimentzearekin batera onartu beharko ditu kontratazio organoak administrazio klausula zehatzen agiriak, baina beti kontratuaren lizitazioa egin aurretik, edo, bestela, lizitaziorik egon ezean, esleipena egin aurretik.

Agirian honako hauek zehaztu beharko dira: kontratuaren oinarrizko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak jasotzeko moduak, esleipen irizpideak eta, hala balegokio, lizitatzailerik edo esleipendunak jarri beharreko bermeak; halaber, 120. artikuluan xedatutakoa ezarriko da.

Horrez gain, kontratuko alderdien eskubideak eta betebeharrak zehazteko itunak eta baldintzak jasoko dira. Kontratuak mistoak direnean, kontratuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztuko da.

Kontratuak administrazio klausula zehatzen agiriari egokitu beharko zaizkio, eta agiri horien klausulak kontratu bakoitzaren zati izango dira.

.....

21. JARRAIBIDEA - BALDINTZA TEKNIKO ZEHATZEN AGIRIAK.

Gastua baimendu aurretik edo hura baimentzearekin batera onartu beharko ditu kontratazio organoak prestazioa arautuko duten eta haren kalitateak definituko dituzten baldintza tekniko zehatzen agiriak, baina beti kontratuaren lizitazioa egin aurretik, edo, bestela, lizitaziorik egon ezean, esleipena egin aurretik.

EDLren honako artikulua hauek aplikatuko dira: 117. artikulua (baldintza teknikoak ezartzeko arauak), 118. artikulua (kontratua gauzatzeko baldintza bereziak), 119. artikulua (fiskalitateari, ingurumena babesteari, enpleguari eta lan baldintzei buruzko betebeharren gaineko informazioa) eta 120. artikulua (lan kontratuetan subrogatzeko baldintzak).

22. JARRAIBIDEA - ESLEIPENAREN PRINTZIPIO GIDARIAK.

EDLren 191. artikulua araberan "Esleipena, publizitate, lehia, gardentasun, isilekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da".

Ondorio horietarako, FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak EDLren 139. eta 140. artikulua aplikatuko ditu berdintasunari, gardentasunari eta isilekotasunari dagokionez eta publizitate printzipioa ere errespetatuko du aurreko jarraibideen araberan.

23. JARRAIBIDEA - LIZITAZIOEN DEIALDIEN PUBLIZITATEA.

A) 50.000,00 eurotik beherako obra kontratuak eta 18.000,00 eurotik beherako bestelako kontratuak:

kontratu txikiak dira eta zuzenean esleitu ahal izango dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide gaikuntza duen edozein enpresabururi esleitu ahal izango zaizkio (138. artikulua).

Kontratu hauek esleitzeko nahikoa izango da gastuaren onarpena eta horri dagokion faktura espedientean egotea.

Obra kontratuetan obren aurrekontua ere gehitu beharko da; eta dagokion proiektuak ere egon beharko du, arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean. Era berean, ikuskatze txostena ere eskatu

.....

beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

B) 50.000,00 euroko edo hortik gorako eta 200.000,00 euroko edo hortik beherako obra kontratuak, eta 18.000,00 euroko edo hortik gorako eta 60.000,00 euroko edo hortik beherako bestelako kontratuak:

Kontratazio organoak publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez esleitu ahalko ditu (177-2. artikuluekiko analogia).

Prozedura negoziatuan, kontratazio organoak hautatutako lizitatzaileri esleitu zaio kontratua. Hautaketa arrazoitu egin beharko da, kontsulta hainbat hautagairi egin eta kontratuaren baldintzak haietako batekin edo hainbatekin negoziatu ondoren.

Kasu horretan, ahal den guztietan, fundazioak kontratuaren xedea gauzatzeko gaitasuna duten hiru enpresari eskatuko dizkie eskaintzak, gutxienez (178. artikuluekiko analogia).

Kontratua 50.000,00 eurotik gorakoa denean, fundazioak klausula agiri bat prestatuko du, honako alderdi hauek zehaztuko dituen:

Kontratuaren xedea:

- Negoziatu beharreko gaiak.
- Eskaintzek eta enpresaburuek lizitazioan parte hartzeko bete beharreko baldintzak.
- Eskaintzak esleitzeko irizpideak.

Negoziazioan zehar, lizitatzaille guztiek tratu bera jasotzen dutela zaindu beharko du fundazioak eta ez du informaziorik emango diskriminazioa eraginez.

Fundazioak jasota utziko ditu egindako gonbiteak, jasotako eskaintzak eta eskaintzak jasotzeko edo baztertzeko arrazoiak.

Hori horrela izanda ere, kontratazio organoak prozedura irekia edo murriztua erabili ahalko du.

A) 200.000,00 eurotik gorako eta milioi bat eurotik beherako obra kontratuak eta 60.000,00 eurotik gorako eta 100.000,00 eurotik beherako bestelako kontratuak:

Publizitadedun prozedura negoziatuaren bidez esleitu ahalko dira.

.....

Kasu horretan, administrazio publikoen publizitadedun prozedura negoziatuekiko analogiaz (142-4. artikulua), lizitazio iragarkiak kontratatzaile profilean argitaratuko dira eta aukerakoa izango da horiek Estatuko Aldizkari Ofizialean edo erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialetan argitaratzea.

Negoiatzeko gonbita egingo zaien enpresen kopurua mugatzea erabakitzen bada, gutxienez hiru enpresari eskatu beharko zaizkio eskaintzak, posible izanez gero.

Kontratua prozedura ireki edo murriztu bidez ere esleitu ahalko da.

Lizitazioaren publizitatea, prozedura irekian zein murriztuan, publizitadedun prozedura negoziaturako adierazi den bera izango da.

D) Milioi bat euroko edo hortik gorako eta 5.225.000,00 eurotik beherako obra kontratuak, eta 100.000,00 euroko edo hortik gorako eta 209.000,00 eurotik beherako bestelako kontratuak:

Prozedura irekia edo murriztua aplikatuko da.

Publizitatea lizitazio iragarkia kontratatzaile profilean argitaratuz egingo da.

Obra kontratuetan, lizitazio iragarkia ALHAOn, EHAAn edo BOEn ere argitaratu beharko da, administrazio publikoekiko analogiaz (142. artikulua):

E) II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, 209.000,00 euroko balioa edo handiagoa dutenak.

EDLk ez ditu arau harmonizatupean dauden kontratuen barruan sartzen.

EDLk xedatzen duen bakarra da, 137. artikulua arabera, 117. artikuluan zehaztutako arauak begiratu beharko direla baldintza teknikoak definitu eta ezartzeko eta 118. artikulutik 120.era xedatutakoa ere aplikatuko dela.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioari dagokionez, honako hauek desberdindu behar dira:

.....

E.1. II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, 209.000,00 euroko balioa edo handiagoa eta 500.000,00 euro baino gutxiagokoa dutenak.

Prozedura irekia edo murriztua aplikatuko da.

Publizitatea lizitazio iragarkia kontratatzaile profilean argitaratuz egingo da, baina kontratazio organoak publizitate hori osatu ahalko du ALHAOn, EHAAn edo BOEn iragarkiak argitaratuz.

E.2. II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzu kontratuak, 500.000,00 euroko balioa edo handiagoa dutenak.

FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioak arau harmonizatupeko kontratuei dagozkien arauak aplikatuko ditu.

Lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, BOEn eta kontratatzaile profilean argitaratuko da.

F) Halaber, kontratazio organoak prozedura negoziatua erabili ahalko du EDLren 170., 171., 173 eta 174. artikuluetako gainerako kasuetan.

G) Kontratazio organoak elkarrizketa lehiakorra ere erabili ahalko du 180. artikuluan jasotako kasuetan (kontratu bereziki zailetan, hau da, kontratazio organoak objektiboki gaitasunik ez duenean bere beharrezanezi edo xedeei erantzuteko baliabide tekniko egokiak zeintzuk diren zehazteko, eta prozedura irekiak edo murriztuak kontratua behar bezala esleitzeko aukerarik ematen ez duenean).

Kasu horietan EDLren 179. artikulutik 183.era bitarteko artikuluetako eta horiekin bat datozen artikuluetako arauak aplikatuko dira. Hala ere, lizitazio iragarkia, milioi bat eurotik beherako obra kontratuetan eta 200.000,00 eurotik beherako gainerako kontratuetan, kontratatzaile profilean argitaratuko da eta aukerakoa izango da iragarkia BOEn edo autonomia erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialetan argitaratzea.

Milioi bat eurotik gorako obra kontratuak direnean, edo 200.000,00 eurotik gorako bestelako kontratuak direnean, lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean, BOEn eta kontratatzaile profilean argitaratuko da.

.....

24. JARRAIBIDEA - LIZITATZAILEEK PARTE HARTZEKO ESKAERAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTEA.

Eskaintzak jasotzeko eta parte hartzeko epeak EDLn zehaztutako gutxienerako epeei lotuko zaizkie; hala ere, prozedura irekirako eta arau harmonizatupekoak ez diren kontratueterako, epea ez da izango 15 egunetik beherakoa, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita. Obra kontratueta, epea ez da izango 19 egunetik beherakoa, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Interesdunen proposamenak administrazio klausula zehatzen agirian ezarritakoari egokitu beharko zaizkio, eta proposamena aurkezteak berarekin dakar enpresak baldintzarik gabe onartzea klausula edo baldintza horien eduki osoa, inolako salbuespenik edo erresalburik gabe.

Proposamenak isilpekoak izango dira 148. eta 182. artikuluetan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu, lege honen 147. artikuluan aldaerak edo hobekuntzak onartzeari buruz eta enkante elektronikoa prezio edo balio berriak aurkezteari buruz 148. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Bakarrik aurkeztutako enpresek ezin izango dute aldi baterako enpresa elkarteetan beste proposamenik izenpetu, ez eta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan parte hartu ere. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horiek izenpetutako proposamen bakar bat ere.

Proposamenean, aparteko partida batean adierazi beharko da jasanarazitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa. EDLren 146. artikuluan (agiriak aurkeztea), 147.ean (aldakerak edo hobekuntzak), 148.ean (enkante elektronikoa) eta 149.ean (prozedurako ondorengotza) jasotako arauak aplikatuko dira.

25. JARRAIBIDEA - ESKAINTZEN BALORAZIOA ETA KONTRATUAREN ESLEIPENA.

EDLren 177-1. artikuluan aipatzen diren prozedura ireki eta mugatuetan eta publikatuetan prozedura negoziatuetan, kontratazio organoek kontratazio mahai baten laguntza izango dute, eta mahai

.....

horren eskumena izango da eskaintzen balorazioa egitea. Licitazioaren berri iragarki bidez eman beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio mahaia eratu edo ez aukeran izango du kontratazio organoak eta hori, hala dagokionean, agirietan aipatu beharko da.

Kontratazio mahaia osatuko dute lehendakariak, idazkariak eta agirian zehaztutako kideek.

Kontratazio organoak izendatuko ditu mahaikideak. Kontratazio organoa adjudikazio proposamenetik aldendu ahalko da, bere erabakia behar bezala arrazoitu ondoren.

Kontratazio mahairik ez dagoen kasuetan, kontratazio organoak egingo du eskaintzen balorazioa, FUNDACIÓN KIROLARABA fundazioko dagokion teknikariak txosten-proposamena egin ondoren.

Proposamen horrek ondokoak jasoko ditu, gutxienez:

- Kontratuaren xedea eta zenbatekoa.
- Jasotako eskaintzak.
- Onartutako eta baztertutako lizitatzailleak eta baztertzeko arrazoiak.
- Eskaintzen balorazioa.
- Proposatzen den esleipenduna, edo, hala dagokionean, kontratazioa esleitu gabe uztea proposatzeko arrazoiak.

Kontratazio organoari dagokio kontratua esleitzea, edo, hala dagokionean, esleitu gabe uztea.

Ezingo da inoiz lizitazio bat esleitu gabe utzi, baldin eta klausula agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat baldin badago.

Kontratua ekonomiaren aldetik abantailatsuena den eskaintzari esleitu zaio.

Ekonomia eskaintza anormalki baxuegia edo ausartegia denean, eskaintza hori irizpide objektiboen arabera baloratu beharko da eta irizpideok kasuan kasuko klausula agirian aipatu beharko dira.

.....

Kontratazio organoak sailkapenetik kanpo utziko du balio anormalak edo neurrigabeak dituen eskaintza.

EDLren ondorengo artikulua hauek aplikatuko dira: 150. artikulua (eskaintzen balorazioa, adituen batzordearen esku hartzeari dagokion 2. atala salbu), 151. artikulua (eskaintzak sailkatzea, kontratua esleitzea eta esleipena jakinaraztea), 152.a (balio anormalak eta/edo neurrigabeak dituzten eskaintzak, 1. atala salbu; izan ere, klausula agirian ezarriko baitira parametro objektiboak) eta 153.a (argitaratu ezineko informazioa).

EDLren 151. artikulua araberan, kontratazio organoak sailkatu egingo ditu aurkeztutako proposamenak, puntuazio altuena duenetik gutxien duenera, neurrigabetzat edo anormaltzat jo ez badira.

Sailkapen hori egiteko, klausula agirian edo iragarkian adierazitako esleipen irizpideei jaramon egingo zaie; horretarako, egoki iruditzen zaizkion txosten tekniko guztiak eskatu ahalko ditu.

Kontuan hartu beharreko irizpide bakarra prezioa baldin bada, ekonomiaren aldetik eskaintzarik abantailatsuena preziorik baxuena duena izango da.

Kontratazio organoak ekonomiaren aldetik eskaintzarik abantailatsuena egin duen lizitatzailari honako hauek eskatuko dizkio: zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen agiria –bestela, baimena eman beharko dio kontratazio organoari organo horrek zuzenean lortzeko agiri hori– eta, lizitatzailak, 64-2. artikulua araberan, kontratua gauzatzeko baliabideak badituela eta arauzko behin betiko bermea eratu duela egiaztatzen duten agiriak. Horretarako, hamar egun baliოდun izango ditu, eskaera jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Eskaera behar bezala betetzen ez bada dagokion epean, lizitatzailak bere eskaintzan atzera egin duela ulertuko da. Hortaz, dokumentu horiek berak hurrengo lizitatzailari eskatuko zaizkio, eskaintzen sailkapen hurrenkerari jarraituta.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso ondorengo bost egun baliოდunetan esleitu beharko du kontratua.

Esleipena, arrazoitua, hautagaiei edo lizitatzailaiei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzaile profilean argitaratuko da.

.....

Jakinarazpenean, behar den informazio guztia jasoko da, horretan oinarrituta, 40. artikulua araberaz, kanpoan utzitako lizitatuak edo baztertutako hautagaiak esleipen erabakiaren aurka errekurtsoa jarri ahal izateko. Halaber, 151-4. artikuluan jasotako puntuak ere jasoko dira.

Betiere, bai jakinarazpenean bai kontratatzaile profileen EDLren 156-3. artikulua araberaz kontratua formalizatzeko dagoen epea zein den adieraziko da.

Jakinarazpena egiteko, hartzaileak hura hartu duela jasota uzteko aukera ematen duen edozein bide erabiliko da.

26. JARRAIBIDEA - KONTRATUA FORMALIZATZEARI BURUZKO PUBLIZITATEA.

A) 50.000,00 euroko edo hortik gorako obra kontratuen, eta 18.000,00 euroko gainerako kontratuen formalizazioa kontratazio organoaren kontratatzaile profileen argitaratuko da eta bertan, gutxienez, esleipenaren iragarkian aipatutako datuak adieraziko dira.

B) Kontratuaren zenbatekoa 100.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa baldin bada, formalizazio horren berri ematen duen iragarki bat argitaratu beharko da BOEn edo kasuan kasuko autonomia erkidegoetako edo probintzietako aldizkari ofizialetan, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasi eta 48 eguneko gehieneko epean.

C) Arau harmonizatupeko kontratuak badira, iragarkia Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, aurreko paragrafoan adierazitako epean.

D) II. eranskineko 17. kategoriatik 27.era bitartean sartzen diren zerbitzu kontratuen kasuan, zenbatekoa 200.000,00 eurokoa edo hortik gorakoa denean, kontratazio organoak esleipenaren berri emango dio Europako Batzordeari, hura argitaratzea bidezko iruditzen zaion edo ez adieraziz.

.....

27. JARRAIBIDEA - UKO EGITEA ETA ATZERA EGITEA.

Fundazioak, espedientean behar bezala justifikatutako arrazoi objektiboengatik bakarrik egin diezaioke uko kontratua egiteari. Kasu honetan, ezingo da helburu bera duen beste lizitaziorik bultzatu, uko egitearen oinarri moduan aurkeztutako arrazoiek bere horretan dirauten artean.

Prozeduran atzera egiteko, kontratua prestatu edo esleipen prozedura arautzeko arauetan zuzendu ezin daitekeen arau hausteren bat egon behar da, eta espedientean justifikatu beharko da atzera egiteko arrazoa. Atzera egiteak ez du eragotziko berehala beste lizitazio prozedura bat irekitzea.

Kontratazio organoak esleipena eman aurretik bakarrik erabaki dezake kontratuari uko egitea edo prozeduran atzera egitea. Bi kasuetan, hautagaiei eta lizitatzaillei kalte ordaina emango zaie gasturik egin behar izan badute, iragarkian edo klausula agirian zehaztu bezala.

28. JARRAIBIDEA - KONTRATUA FORMALIZATZEA.

Kontratu txikiak EDLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatuko dira.

EDLren 40.1. artikulua araberako kontratazio alorreko errekurtsio berezia jarri ahal zaien kontratuen kasuan, horiek ezingo dira formalizatu lizitatzaillei eta hautagaiei jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun balioudun igaro baino lehen.

Kontratazio organoak bost eguneko epea emango dio esleipendunari kontratua formalizatzeko, eskaera horren agiria jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Horretarako, betiere, aurreko paragrafoan aurreikusitako epea igaro eta kontratuaren formalizazioa bertan behera uztea eragiten duen errekurtsorik ez da egon behar. Berdin-berdin jokatuko da errekurtsioa ebatzeko organo eskudunak etendura kentzea erabakitzen duenean.

Gainontzeko kasuetan, kontratua formalizatzeko epea honako hau izango da, gehienez ere: hamabost egun balioudun, lizitatzailleek eta hautagaiek 151-4. artikuluan jasotako moduan esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

.....

Esleipendunari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla-eta kontratua ez bada adierazitako epean formalizatzen, fundazioak behin betiko bermea konfiskatzea erabaki dezake, eskatutako behin-behineko bermearen zenbatekoaz.

Ezin izango da kontratua gauzaten hasi aldez aurretik formalizatu ez bada, larrialdiko izapidetzeen kasuan izan ezik.

29. JARRAIBIDEA - PROZEDURA IREKIA, MURRIZTUA ETA NEGOZIATUA.

Prozedura irekian 157. artikulutik 161.era bitartean ezarritako arauak aplikatuko dira, bi salbuespenekin:

159-2. artikulua: arau harmonizatupekoen besteko kontratuetan, proposamenak aurkezteko epea ez da izango 15 egun baino txikiagoa, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

160. artikulua: ezin da aplikatu 150-2. artikuluko adituen batzordeari edo organismo tekniko espezializatuari egindako aipamena.

EDLren 145. artikulua araberaz:

Kontratuaren esleipenduna hautatzeko irizpide bakarra prezioa denean, esleipena egiteko epea, gehienez ere, 15 eguneko izango da, proposamenen gutunazalak irekitzeko egunaren ondokotik kontatzen hasita.

Kontratua esleitzeko kontuan hartu behar diren irizpideak hainbat direnean, esleipena egiteko gehienezko epea bi hilabetekoa izango da, proposamenen gutunazalak irekitzen direnetik kontatzen hasita, non eta administrazio klausula zehatzen agirian ez den beste epe bat ezarri.

EDLk prozedura murrizturako 162. artikulutik 168.era bitartean ezarritako arauak aplikatuko dira.

Prozedura negoziaturako ezarritako izapidetze arauak aplikatuko dira, hain zuzen ere, EDLren 176. artikuluan (nahiz eta 50.000,00 eurotik beherako kontratuetarako klausula agiririk ez den beharko), 177-3.ean eta 178.ean ezarritakoak.

Publizitateari dagokionez, aurreko jarraibideetan ezarritakoa beteko da.